



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA IZAERA OROKORREKO XEDAPEN BAT EGITEKO. XEDAPEN HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEEN IZEN OROKORRAK EZARTZEN DIRA, ETA ERREGISTRO-INSKRIPZIOEI DAGOZKIEN IZENDAPENEN ERABILERA ARAUTZEN DA, IKASTETXEAK HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREKIN DUTEN HARREMANEAN IDENTIFIKATZEKO, ETA PUBLIZITATEA EGITEKO.

Hezkuntza Sailak egokitzen du arau-xedapen orokor bat egitea, EAeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen izen orokorrak ezartzeko eta haien erregistro-inskripzioei dagozkien izendapenen erabilera arautzeko, ikastetxeak identifikatzeko, hezkuntza-administrazioarekiko harremanetan, eta publizitatea egiteko.

Agindu honen xedea da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa estaltzea, kontsulta publikoan eta testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarrek eta etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen erakunde adierazgarrienek honako gai hauei buruz duten iritzia jasotzeko dagokionez: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak eta egon daitezkeen konponbide alternatibo erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Horregatik guztiagatik, herritarrei, erakunde publikoei, antolakundeei, entitatei edo elkartei dei egiten zaie, proiektatu nahi den arauaren eraginpean egon daitezkeela pentsa dezaten, eta iritzia eman dezaten lantzen hasiko den xedapen orokorrari buruz. Horretarako, hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak egin eta aurkeztu ahal izango dituzte.

381/2024 Dekretuak, azaroaren 19koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena, ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

## EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** Xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, aurreko kontsulta egitea. Xedapen horren bidez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen izen orokorrak ezarriko dira, eta, bestetik, erregistro-inskripzioei dagozkien izenen erabilera arautuko da, ikastetxeak identifikatzeko, hezkuntza-administrazioarekin duten harremanean eta publizitatean.

**Bigarrena.-** Hamabost egun balioduneko epea ezartzea, agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek, hala uste badute, beren iritzia eman dezaten lehenengo ebazpen-zatian aipatutako xedapen orokorraren proiektuari buruzko gai hauei buruz::

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.
- Arauaren helburuak.





– Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailer eta ez-erregulatzailerak.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.